



Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez aldez aurreko onarpena ematen baitzaio hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeak ebaluatzeko prozesua arautzen duen agindu-proiektuari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak II. kapituluan xedatzen duenez, arloan eskumena duen sailburuaren aginduz hasiko da xedapen orokorrak egiteko prozedura.

Lege horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, "xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik".

Aldez aurretik, sailburu honek agindu zuen hasiera ematea hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeak ebaluatzeko prozesua arautzen duen agindu-proiektua egiteko prozedurari.

Agindu-proiektuaren testua idatzi ondoren, hasteko agindu horretan ezarritako helburuarekin bat etorritz, aldez aurreko onarpena eman behar zaio.

Hori guztia dela eta, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeak ebaluatzeko prozesua arautzen duen Hezkuntzako sailburuaren agindu-proiektuaren testua

Bigarrena.- Xedapen hori egiteko prozedura amaitzeko behar diren instrukzio-egintzekin jarraitzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean,

Begoña Pedrosa Lobato
Hezkuntzako sailburua

